


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**B**ilbao



ARTE BIZIAK / MUSIKA **MAR. 13** (ostr.)

# Lasole

*Números primos*



**Lasolek** (1995), Granadako MC-k, bere lehen EPa aurkeztuko du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. *Números primos* EPak hiru kanta ditu: amodio-istorio bat ematen duenaren hasiera, korapiloa eta amaiera, nahiz eta, berez, bere buruarekin izandako hizketaldi bat izan, gizarte modernoak maitatzeko orduan ezartzen dizkigun tarei burukoa.

Paolo Giordano idazle italiarraren *La solitudine dei numeri primi* (2008, Italia) eleberrian inspiratuta, artistak bere egiten du Giordanok bere obran protagonisten amodio-istorioa kontatzeko erabiltzen duen metafora.

Artistak azaltzen duenez, «**Hain zuzen, amodio intimo eta atseginaren gozotasunaren eta amodio-jabetzaren ideal erromantikoaren kontrako etsipenaren eta amorruren arteko tentsioak bilakatzen ditu bere gaiak abentura, eta, hor, entzuleak bere deabruak ere esploratu behar ditu, ez dut beren txalorik nahi; uler nazaten, hori besterik ez dut nahi**».

**Lasoleren** hitzak, emozioz beterik, ahots intimo eta sensual baten bidez irristatzen eta sartzen dira, eta ahots horrek gonbit egiten digu kontenplazio zuzen eta oso batera. Interpretatzaile gazteak trebetasuna erakusten du, bere kantatzeko modu gozo, delikatu eta enigmatikoarekin. Beharbada, dagoeneko ospea duten edo ez dauden artisten antza du... baina kasualitate hutsa da hori, Lasolek bere izaera baitu, bai eta ibilbide luzea aurretik ere...

**Lasolek** Nietzscheren dizipulutzat hartzen du bere burua. Gazte-gaztea zela, solfeoa eta pianoa ikasi zituen. Oso goiz erabaki zuen sormen-prozesuarekin aurrera egitea, eta musikan bere estiloa bilatzen hasi zen modu autodidaktan. Haurtzarotik letren zale sutsua eta irakurle amorratua izan zen, entzungailuetan babestu zuen bere burua, eleberritik saiakerara lerratu zen, eta azterketa filosofikoetan egin zuen geldialdia, etengabe planteatzen dituen gai guztiei zentzua eta erantzuna ematen laguntzen baitiote. Hiria eta hiriko jendea erreferente idilikoak dira artista honen poema-liburu osoan «ez da ulertzen nire musika Graná gabe»; era berean, estribu mingarri bat ere badira, sentsazioak, bizipenak eta nerabegaroko pasarteak herrestan dakartzana, eta haren bertsoak errebeldiaz blaitzen dituen.

////////////////////////////////////

**Martxoak 13, ostirala**

21:00

**Kulturen Ataria**

**Igerilekuaren argi-zuloaren azpian**

12€ / 10€ Az Txartelarekin

////////////////////////////////////

**FITXA ARTISTIKOA:**

**Interpretazioa:**

Lasole

**Ekoizpena:**

Javi Lacrema

////////////////////////////////////

 [tastethefloor.es/artist/lasole/](http://tastethefloor.es/artist/lasole/)

 [@soledatt](https://www.instagram.com/soledatt)